

GIPUZKOAKO ABOKATUEN ELKARGOAREN ESTATUTUAK

59. artikulua.– Boto-eskubidea.

1.– Batzar Nagusirako deialdia egiten den egunaren aurretik Elkargoan sartuta dauden elkargokide guztiak joan ahal izango dira ohiko eta aparteko batzar nagusietara hitzarekin eta botoarekin.

2.– Jarduneko elkargokideen botoak, jardunik gabekoen botoaren bi halako balioa izango du.

Bozketetan parte hartu ahal izateko, hauteskundeetakoak ere barne, kuoten ordainketan egunera egon behar da.

3.– Elkargokideek delegatu ahal izango dute beren botoa beste elkargokide batengan, baina ezingo da, norberarenaz gainera, beste hiru elkargokide baino gehiagoren botoa baliatu, Estatutu honetan xedatutakoez bestelako salbuespenik gabe. Boto-delegazioa bileraren hasieran frogatu beharko da elkargokide delegatzaileak sinatutako idazki bidez, eta idazki horretan elkargokide delegatzailearen eta delegatuaren identifikazio-datuak eta delegazioa zein deialdiri dagokion adierazi beharko dira. Sinadura NANaren kopiaren bitartez, edo, ahal izanez gero, Idazkaritzan dauden datuen bidez egiaztatu ondoren, Dekanoak edo bere ordezkari bilera-buru den pertsonak, onartu ahal izango du boto delegatua, edota, bestela, ukatu, adierazitako baldintzak betetzen ez direlako; eta hori aktan jaso beharko da.

Ordezkatutako pertsona Batzarrera joaten bada, delegazioa ezeztatu egin dela ulertuko da beti.

OHARRAK:

- Elkargoko langileak Elkargoko bulegoetan egongo dira 9:45etik aurrera. Bertan, Ohiko Batzar Orokorrerako bertaratzea eta eskuordetutako botoa egiaztatu ahal izango dira, eta 11:45etik aurrera, Ezohiko Batzar Orokorrerako bertaratzea eta botoa.

- Bertaratutakoak akreditatzeko izapidea amaitu eta boto-eskuordetzeak egiaztatu ondoren, Dekanoak edo horren ordezkari dagoen pertsonak Batzarrari hasiera ematen dionean debekatu egingo dela Aretora sartzea.